

Sheve Peña

Mendizaletasunaren historiaren egile eta testigu

TXEMA URRUTIA



Nace en Tolosa el 8 de noviembre de 1907. Se inicia en el montañismo en 1925 y entre esa fecha y 1936 recorre todas las montañas de Euskal Herria y lo más interesante del Pirineo.

1953. Hace el recorrido de las 4 catedrales: vuelta al País Vasco por montaña uniendo en 4 días Bilbao-Donostia-Pamplona-Vitoria-Bilbao.

1964. Asciede por primera vez al Cervino que repetirá en 1975 y al Mont Blanc, que repetirá 7 veces.

1968. Sube al Kilimanjaro, que también repetirá.

1973. Es el primer montañero vasco en intentar el Aconcagua, a cuya cumbre no llega, por salvar la vida de un alpinista francés.

Actualmente pasa el mes de julio en los Alpes y setiembre en el Pirineo. 79 años; 42 pulsaciones y una recuperación prodigiosa tras el esfuerzo. Sigue saliendo cada domingo al monte para hacer alguna travesía de 6 u 8 horas.

Atzo hamabost egin nuen azkena. Amezketatik bakar bakarrik San Migela. Hantxen dutxa bat hartu nuen, bazkaldu zerbait eta burni gurutzetik Lekunberriraino jaitsi nintzen Roncalesa autobusa hartzeko. Begira, hemen dauzkát hartu nituen notak (beti daramat papera eta boligrafoa) ordutegi osoa zehatz mehatz... dena bost ordu eta erdi.

Oso forma onean zaude. Gaztetan azkarrago egingo zenituzkeen hala ere, edo ez hainbeste? Nola ikusten duzu zure burua lehen eta orain?

Gaztetan bizia nintzen, azkarra ere bai ibiltzean, bizkorra (hori, denak esaten zida-

ten). Behar bada orain baino azkarrago baina orain bat ere nekatu gabe ibiltzen naiz eta, ia ia, lehen bezala egiten ditut ibilera guztiak. Lehen baino askoz gehiago neur-tzen bait ditut nere ibilerak.

Gazte nintzela, egunero urte osoan... 365 egunetan! goizeko 6,00etan Berazubiko pistetan nengoen gorputza lantzeko prest. Han, Iguarrantarrek erakutsi ziguten: soinketan, atletismoan... danetan aritu ginen. 17 urterekin, Juan Mugerza crossean hirugarren gelditu nintzen eta ondoren Gipuzkoako txapelketa irabazi nuen. Baina berehala mendira joateari ekin nion eta behin ere ez dut utzi.

Igandero joaten naiz. Noizean behin ezina gertatzen da baina gehienetan eta nere bizitza osoan ibili egin naiz... mendian ibili.

Hasi zinenean, beraz, Mendi Federazioa berri berria zen eta Andres Espinosa bereak eta bi egiten ari zen munduko mendietan zehar.

Andres Espinosa mendizale aparta izan zen: Mont Blanc, Kilimanjaro, Ararat eta Himalayaraino joan zen. Beti bakarrik. Baina dena, gerra aurretik. Gerran gudari zela, Gorbean ibili zen. Bilbon harrapatu zuten eta Iruineko San Cristobal gazteluan espetzeratu. Handik, lagun batzuekin ihes egin

zuen eta harrezkeroz —nere ustez— «manía persecutoria» delako baten menpean bizi zen... beti beldurrez eta jendearengandik eskutaturik.

Hala ere, laguna nuelako, behin Elgetara ospakizun batetara eta Gorbeako Gurutzearen urteurren egunean berriro, lagun zaharregana eramatea lortu nuen.

Gerra zibilak mendizaletasunak zeraman ritmoa bertan behera bota zuen, dirudienez?

Bai, horrela izan zen. Gerraren ondorioz eta 10-15 urte bitartean mendizaletasuna geratu egin zen erabat. Andres Espinosari gertatu zaiona hor dago eta Espinosa ez zen edonor.

Ni berriz, gerra ondoren Frantziara joan nintzen anaiarekin eta 5 urte geroago Madridera lan bila. Bilbora etorri nintzen


1946an eta berehala mendiz mendi hasi nintzen berriro. Urte haietan, Pyrenaica ere isilik egon zen.

Gerra aurretik, Andres Espinosak Mont Blanc eta Kilimanjaro mendiak gairatu zituen, 1953ra arte inor ez zen auzartu berriro Mont Blanc-era joaten.

Garai hartan, Euskal Herriko 4 Hirien arteko mendi ibilera prestatzen ari nintzenez, Angel Sopeñak 100 menditako lehiaketarako zegoen zerrenda berritzea eskatu zidan, José Mari Peciñaren bidez. Ni lanpeturik eta bero bero nengoen nere ibilera horrekin baina urte hartan bertan 1953an Peciña Mont Blanc en hil zen eta bere oroimenez lanari ekin nion.

Angel Mari Goienetxearen laguntza eta 600 bat tontorretan egonez gero katalogoa egin nuen.

Aconcaguan istoriaren ondorioan.



Gizartea aldatu den bezala, mendizaletasuna ere aldatu egin da. Mendia bera ere aldatu al da?

Mendiak hor daude... ez dira aldatu baina, edo gu aldatu gera edo... Nerretzat aldaketa handiena pistak ekarri dute. Orain, pistak besterik ez dago eta gaur mendi baten gailur batera iristea askoz errezago da.

Garai haietan, behe behetik, herrietatik bertatik hasten genuen igoera eta herrietara joateko gainera bizikletaz joaten ginen gehienbat. Esate baterako: 1926an Orhija joateko goizeko ordu 2.00etan abiatu ginen bizikletaz eta gero, Otxagabia bertatik hasi oinez Orhiaino. Maila honetan aldaketa handia dago.

Gazte banintz, eskaladore izango nintzateke agian

Garai hartan, gerra aurretik, Aralarko 14 ordutako ibilaldia egiteko —esate baterako— ez ginen 12 edo 15 baino gehiago. Lehenengoan 14 irten ba ziren, azkenengoan aurrean bertan, 1.016 irten dira. Noski, lehen informaziorik ez zegoen eta ezinezkoa zen publizitate handia egitea. Hori ere aldatu da.

19 urtekin, 1926an egin nuen nik martxa hori lehenengo aldiz. Garai hartan, Aizkorri-ra joatea abentura txiki bat izaten zen eta ni bizikletaz joaten nintzen Zegamaraino. Hala ere, 12 bider izan nintzen ni Aizkorriko puntan 1927an. Hainbeste aldiz joaten nintzela eta «Aizkorri» deitzen ninduten artzaiek. Behetik gora nentorrela ikusiz «ba dator Aizkorri» esaten zuten.

Eskalatzea, helburu bezala, gaurko gauza dela dirudi, baina gerra aurretik ere baziren batzu horretaz saiatzen zirenak.

Bai, gure artean Angel Sopeña eta bere lagunak hasi ziren. Ni berriz, «eskaladore nato» ez izan arren, eskalada teknikak mendi handietara igotzeko beharrezkoak direlako, ezagutu ez ezik erabili ere egiten ditut.

Pico del Fraile paretako lehenengo eskaladaren oroimen bitxi bat dut etxean. Pareta ikasi eta aztertu ondoren, Angel Sopeñak burni oker bat prestatu zuen taller batean eta lagun batekin eta burni oker bat prestatu zuen taller batean eta lagun batekin eta burni hori esker, igotzea lortu zuen. Sopeñak eman zidan burni hori eta paretan daukat historiaren altxor bat bezala.

Gutxitan egon arren, Picos de Europa leku aparta iruditzen zait eskaladoreentzat.

Altxorra aipatu duzu baina zure benetako altxorra daukazu mendi liburutegia da.

Gehienbat bakarrik ibili arren, mendian zehar eta mendiari esker lagun asko eta asko



**«Ni ez naiz
eskaladore nato»...
izango ba litz!**

dea paketsuna, oso paketsua gainera... eta larrialdietan lagunak lasaitzen dituen. Ni mendian nire etxean banintz bezala sentitzen naiz.

Bestalde, gorputza zainduta daukadalako gozatu egiten dut beti, agujeta edo holakorik inoiz ez dut izan. Nekea ez dut sentitzen sekula. Mendian ibiltzean ikasi egiten dut. Gure lurralde guztietan ibili naiz eta oso ondo dakit zeintzuk diren eta nun dauden gure mendiak.

Gorputzaren nekea ez dut sentitzen... sekula!

Mendiak eman dit gainera bizitza pozgarri bat, bizitzeko gogo... eta lagunak. Adiskide asko dauzkat mendiari esker, betiko adiskideak gainera. Leku askotan ibili ondoren hori da nere poz handiena, leku guzti hoietan lagunak ditudala, bai Alpesetan, bai Andesetan... eta hemen ere noski, nere denborakoak ez ezik gazte asko ere bai.

Non dago Sheve Peñaren sekretua?

Gaztetan atletismoan, gero mendian gorputza landu egin dut beti. Hau da garrantzitsuena: gazte gaztetatik prestakuntza fisiko on bat lortu eta mantentzea. Noski, ez dut erretzen ez da alkoholik edan ere. Gaztetan edozein gauza egiten duzu esperientzia eza-gatik. Nik ere astakeria batzu egingo nituen. Orain ordea, askoz gehiago neurtzen ditut gauza guztiak, bai jateko, bai zaintzeko, bai helburua jartzeko. Nere ustez, gidariarekin ikasi behar da, nik behintzat Alpesetako gidariengandik ikasi dut gehienbat.

Hemen Mendi Eskolak egin behar luke lan hori hasieratik: mendiak zeintzuk diren eta nolakoak; zein oinetakoak behar diren kasu bakoitzean; eguraldiaren aldaketak; nola eta zer jan eta abar eta abar. Baina batez ere, berriro diotsut, prestakuntza fisikoa gazte gaztetatik, gorputz desarroilatu bat izateko eta arnasa hartzen ondo ikasteko.

Agurtzeko orduan zera esan dit: Aurten Mont Blanc-era lehenengo igoeraren bigarren mendeurrena dela eta, irailaren 7an Aita Santua Mont Blanc-eko tontorreraino eram nahi dutela.

Ez dut uste egun horretan Sheve bera (bere 80 urterekin) tontorretik urrutiegi egongo denik.

egin ditut mundu osoan, eta saiatu naiz benetan arreman guzti hoiak mantentzen, personalki eta kartetan bidez.

Horrela, espedizio guztietatik tarjeta bat gutxienez jasotzen dut eta artxibatu ere. Begera, azkena Takolok bidali dit Anapurnatik. Mendian ibiltzea ez ezik hau izan da nere hobby handi bat: liburutegi bat osatzea. Eta orain gehiago.

Lehenengo garaietakoa dena daukat: Peñalara, Pyrenaica eta Naparren aldizkariak oso osorik; Antonio Ferrerek (el hombre de las cavernas) zeuzkan denak saldu zizkidan; Angel Sopenak berriz, eman egin zizkidan beroienak; Antxon Brandesek ere, asko eman zidan.

**Arriskurik bat
ere ez daukadala
pentsatuz,
bakarrik ibiltzen
naiz gehienbat**

Gaurkoak ere. Mendi liburu guzti guztiak dauzkat; Europako aldizkari asko; mapak... ederra bildu dut benetan.

Baina hau ez da ni gozatzeko bakarrik, ez ... guzti honekin etortzen zaizkidanei laguntzen diet, hortarako prest nago beti eta pozik. Gero zer?... Ez nuke nahi bildu ditudanak gal daitezen. Gustatuko litzaidake, gerorako ere, gure medizaletasunarentzat erabilgarri izan dadin baina... liburu batzu utzi dizkiot elkarte bati edo besteari eta gero galdu egin dira... Federazioan ere jendea aldatu egiten da, lekua ere aldatu egiten da... egin beharko dena, garrantzi handia duen Institutuzio baten eskuetan uztea da baina... ez dakit.

79 urte eta ia denak mendizaletasunari eskeiniak. Mendian ez zaudenean, zure etxean irteera bat prestatzen edo eta iritsi zaizun tarjeta, aldizkari edo liburua irakurtzen pasatzen duzu denbora. Zer ematen dizu mendiak?

Mendiak ibiltzeak lasaitasun handia ematen dit. Berez, nerbioa naiz, mendian or-